

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

7/2021 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, azaroaren 16koa, honen bidez, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua egokitzen da, Konstituzio Auzitegiak zerga horri dagokionez berriki hartutako erabakia dela eta.

Konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 16ko 26/2017 epaiak eta 2017ko martxoaren 1eko 37/2017 epaiak Konstituzioaren kontrako eta deusez deklaratu zituzten, hurrenez hurren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren 16/1989 Foru Arauaren 4.1 eta 4.2.a) artikulua eta Arabako Lurralde Historikoaren hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauaren 7.4. artikulua, baina soilik balio-gehikuntzarik ez izateagatik berez gaitasun ekonomikorik adierazten ez duten egoerak zergapetzeari dagokionez. Halaber, eta ildo beretik, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko maiatzaren 11ko 59/2017 Epaiak (hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoa) Konstituzioaren kontrako eta deusez deklaratu zituen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 107.1, 107.2.a) eta 110.4 artikulua (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen lege hori).

Bizkaiko Lurralde Historikoan ez zen egin zergaren araudi erregulatzailearen konstituziokontraktasun-deklaraziorik, baina, hala ere, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga aplikatzeari buruzko zalantzak sortu zirenez, Bizkaiko araudia jurisprudentzia horretara egokitu behar izan zen. Hori dela eta onartu zen ekainaren 20ko 3/2017 Foru Dekretu Arauemailea, zeinaren bidez Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua aldatzen den. Arau horren bidez ebatzi zen lursailen balio-gehikuntza duten kasuak bakarrik zergapetuko direla. Aldiz, ez dira zergapetuko lursailen balio-gehikuntzarik sortzen ez duten eragiketak eta, beraz, ezta lurron balioa gutxitzea eragiten dutenak ere.

Ondoren, 2019ko urriaren 31n emandako 126/2019 Epaiaren bidez, Goi Auzitegiak Konstituzioaren kontrako deklaratu zuen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 107.4. artikulua ere, ordaindu beharreko kuota zergadunak benetan izanda-ko ondare-gehikuntza baino handiagoa den kasuei dagokienez.

Oraintsu, Auzitegi horrek 2021eko urriaren 26an emandako 182/2021 Epaiaren bidez, Konstituzioaren kontrako eta deusez deklaratu ziren Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 107.1 artikulua bigarren paragrafoa eta 107.2.a) eta 107.4 artikulua, eta, horren ondorioz, tributu hori likidatu, egiaztatu, bildu eta berrikustea eta, beraz, eskatzea eragozten duen zerga-oinarriaren zehaztapenari buruzko arau-hutsunea utzi zuen.

Era berean, nahiz eta Bizkaiko Lurralde Historikoan ez den egin zergaren araudi erregulatzailearen konstituziokontraktasun-deklaraziorik, adierazitako epaien bidez araudi erregulatzailearen zati baten konstituziokontraktasuna deklaratu da, eta araudi horren funtsa Bizkaiko Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudiaren antzekoa da. Arrazoi hori dela eta, premiazkoa da Bizkaiko araudia erabaki horretara berehala egokitzea, inolako desadostasunik gabe betetzeko Konstituzio gaitasun ekonomikoaren printzipioari buruzko interpretazio juridikionala, kontuan harturik, halaber, Konstituzio Auzitegiaren azken epaian jasotzen den hau: «El mantenimiento del actual sistema objetivo y obligatorio de determinación de la base imponible, por ser ajeno a la realidad del mercado inmobiliario y de la crisis económica, y, por tanto, al margen de la capacidad económica gravada por el impuesto y demostrada por el contribuyente, vulnera el principio de capacidad económica como criterio de imposición (artículo 31.1 CE)».



Adierazitakoa dela bide, Konstituzio Auzitegiak emandako jarraibideak betetzeko, foru-dekretu arauemaile honen bidez egin beharreko aldaketak edo egokitzapenak egingen dira, zergaren araudiari batasuna emateko eta gaitasun ekonomikoaren printzipioa betetzeko.

Modu horretan, alde batetik, ekainaren 20ko 3/2017 Foru Dekretu Arauemailearen bidez sartutako foru-arauaren lehenengo xedapen gehigarrian arautu denaren ildo beretik, ez daude zergapean lursailen balio-gehikuntzarik ez duten egoerak, eta zergapetuta ez egoteko beste kasu bat ezarri da, interesdunak hala eskatuta balio-gehikuntzarik gertatu ez dela egiaztatzen den kasuetarako. Era berean, teknikoki hobetu da zerga-oinarriaren zehaztapena, une oro islatu dezan higiezinen merkatuaren errealitatea; lurzuaren kastro-balioak beherantz zuzentzeko aukera aitortu zaie udalei, duten eguneratze-gradua kontuan hartuta; eta lehen indarrean zeuden eta zergaren zerga-oinarria zehazteko lursailaren balioaren gainean aplikatzekoak ziren urteko portzentajeen ordez, gehieneko koefiziente batzuk ezarri dira, lursaila erosi zenetik igarotako urte kopuruaren arabera. Koefiziente horiek urtero eguneratuko dira, kontuan harturik zein izan den egindako salerosketen prezioen eboluzioa; hala ere, tributu-karga benetan izandako balio-gehikuntzara egokitzeko ahalmena aitortzen zaio zergapekoari.

Konstituzio Auzitegiak, lehen aipatutako 182/2021 epaiaren 5. oinarri juridikoan, bai espere objektiboari dagokionez, honako hau adierazten du: « Zerga-oinarriaren zenbatespen-metodo hori Konstituzioaren arabera legitimoa izan dadin, zergaren aplikazioa sinplifikatzeagatik edo administrazio-erabilgarritasunagatik, (i) ez da zerga-oinarria zehazteko metodo bakar bihurtu behar, eta legez onartzen dira balio-gehikuntzaren zuzeneko zenbatespenak, (ii) edo horiek kargatzen diren bitarteko edo bitarteko potentzialak; hau da, ziurrenik denborak aurrera egin ahala hiri-lur orotan gertatzen direnak. (KAE 26/2017, 3. OJ; KAE 37/2017, 3. OJ; KAE 59/2017, 3. OJ; KAE 72/2017, 3. OJ; eta KAE 126/2019, 3. OJ)

Horren ondorioz, zergaren zerga-oinarria zehazteko sistema objektiboa aukerako sistema bihurtu da, eta soilik aplikatu ahal izango da zergapekoak adierazitako eskubidea baliatzen ez duenean. Konstituzio Auzitegiaren agindua betetzen da horrela, hain zuzen, zerga-oinarria zehazteko metodo objektiboa ez dadila izan legez onartzen den metodo bakarra; balio-gehikuntzaren zuzeneko zenbatespenak baimentzen dira, zergapekoak hala egiteko eskatzen duen kasuetan. Azken finean, erreforma honen bidez, zergadunaren benetako gaitasun ekonomikoari egokitu nahi zaio zergaren zerga-oinarria.

Gaitasun ekonomikoarekiko egokitzapen horren ildotik, 5 puntu igo da udalek zergaren kuota zehazteko eskatu beharreko gehieneko tasa, eta, horrela, gehieneko tasa hori berdindu egin da Bizkaian, Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoenarekin. Era berean, aurrekontu-egonkortasunaren eta udal-autonomiaren printzipioak errespetatuz, komeni da lurralde historikoko udalerriek zerga horren ondoriozko zerga-karga zehazteko duten marjina zerga-oinarria kalkulatzeko modu berrira egokitzea.

Azkenik, kontuan harturik, alde batetik, aurrerantzean balio-gehikuntzarik ez duten egoerak ez direla zergapean egongo eta, beste alde batetik, eskuratutakoa baino handiagoa den gainbalioaren tributazioa saihesteko araua, xedatzen da udalek kasuan kasuko egiaztapenak egiteko ahalmena izango dutela.

Foru-dekretu arauemaile honetan jasotzen diren neurriak hartzea justifikatuta dago, batetik, Konstituzio Auzitegiaren epaien ondorioz zerga ordaintzeko betebeharra berehala berrezarri behar delako, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa babesteko; eta, bestetik, komenigarria delako higiezinen merkatuan berehalako distortsioak saihestea, egoera ez larriagotzeko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikulua 2. apartatuan jasotako xedapenak kontuan hartuta eta agintariak neurriak azkar hartu behar dituztenez —ahal den neurrian aipatutako adierazpenek eragindako salbuespeneko egoera arintzeko—, beharrezkoa da foru-dekretu arauemailearen bidea erabiltzea; izan ere, hala, arau honetan jasotako neurriek berehalako eragina izatea lortuko da. Dena dela, foru-dekretu arauemaile honen edukiaren berri eman behar zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.



Hori dela bide, Ogasun eta Finantzako foru-diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiak eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren aldaketa

Xedapen gehigarri bat, lehenengoa, gehitzen zaio Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauari, eta honela geratzen da:

Bat. Aldatu egin da 1. artikuluko 2. idatz-zatia. Honela idatzita geratzen da:

«2. Ez dago zerga honen menpean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako landakotzat hartutako lurren balioaren gehikuntza. Aldiz, Zergapean da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako hirikotzat hartu behar diren lurren balioaren gehikuntza, katastroan edo eroldan hala ageri zein ez. Zerga honen ondorioetarako, ezaugarri bereziko higiezin gisa sailkatutako lurzoruek duten balio-gehikuntza zerga honen mende egongo da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako».

Bi. 4. idatz-zatia gehitzen zaio 1. artikuluari; hau da haren edukia:

«4. Ez dira zergapean egongo eskualdatze- eta eskuratze-datetan lursail horien balioen arteko aldeagatik balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen den lursailen eskualdatzeak.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko interesa duen pertsonak edo entitateak eskualdatzea deklaratu beharko du, bai eta eskualdatzea eta eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu ere. Ondorio horietarako, pertsona edo entitate interesdunak dira foru-arau honen 3. artikuluan zehazten direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, lursailaren eskualdatze- edo eskuraketa-balioztat hartuko da, kasu bakoitzean, balio hauetatik handiena. Ondorio horietarako, ezin dira eragiketa horiek kargatzen dituzten gastu edo tributuak zenbatu, eta denbora igarotzeagatik ezin da eguneratzerik egin.

a) Eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasota dagoena.

b) Hala dagokionean, zerga-administrazioak egiaztatu duena.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin baten eskualdatzea denean, lurzoruaren balioztat hartuko da, ondorio horietarako, zergaren sortzapen-datan lursailaren katastro-balioak duen proportzioa katastro-balio osoarekiko aplikatuta ateratzen dena. Eta, lurzoruaren katastro-balioa eta eraikuntza banakatu gabe badaude, lurzoruaren balioztat hartu ahal izango da katastro-balioaren gaineko % 40, eta proportzio hori eskualdatze-balioari (eta, hala badagokio, eskuratze-balioari) aplikatuko zaio. Paragrafo honetan ezarritakoa gorabehera, aurreikusitakoaz bestelako proportzio bat aplikatu ahal izango da, pertsona edo entitate interesdunak hala egiaztatzen duenean.

Eskuratzea edo eskualdatzea kostu gabekoa denean, aurreko paragrafoetako arauak aplikatuko dira, eta, hala badagokio, lehen aipatu diren alderatu beharreko bi baloreetatik lehenengotzat hartuko da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aitortutakoa.»

Hiru. Aldatu egin da 4. artikuluko 1. idatz-zatia. Honela idatzita geratzen da:

«1. Zerga honen oinarria lursailen balioaren gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez ere hogeitun urtean metatutakoa. Zerga-oinarria honela zehaztuko da, artikuluko honen 4. idatz-zatian ezarritakoa gorabehera: lursailak sortzapen-unean duen balioa —artikulu honetako 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu—, bider sortzapen-aldiari dagokion koefizientea —3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat—.»

Lau. Berridatzi egin da 4. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letra; honela geratzen da idatzita:

«a) Lur-eskualdakotzetan, lurren balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako finkatutakoa izango da. Erabilerean batean lurren eta eraikuntzaren katastro-balioa ez badago banakatuta, balio horren %60 aplikatu ahal izango da.



Udalek aurreko paragrafoan adierazitako balioaren gaineko koefiziente murriztaile bat ezarri ahal izango dute ordenantza fiskalean, haren eguneratze gradua haztatze-ko; gehienez ere, ehuneko 15.»

Bost. Berridatzi egin da 4. artikuluko 3. idatz-zatia, eta 4. zenbakia gehitu da. Honela idatzita geratu dira:

«3. Gehikuntza hori agerian jarri den urte kopurua izango da balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia.

Zergaren kargapean ez dauden kasuetan, salbu eta foru-agindu bidez besterik ezar-tzen ez bada, lursailaren geroko eskualdatze batean agerian jarritako balio-gehikun-tzaren sortzapen-aldia kalkulatzeko eskuratze-datatzat hartuko da zergaren aurreko sortzapena gertatu zen data, aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, foru-arau honen 1. artikularen 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezin geroko eskualdatzean, lur-sailen balio-gehikuntza agerian jarri den urte kopurua kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko lursailak eskuratu aurreko aldia, kasu hauetan izan ezik: zergapean ez dau-den ondasun higiezin ekarpen edo eskualdatzeetan, kontuan harturik zer ezarrita dagoen foru-arau honen 1. artikuluko 3. idatz-zatian, edo 2. artikularen 3. idatz-zat-ian; kasu horietan, aurreko paragrafoan xedatu dena aplikatuko da.

Igaro den urte kopurua kalkulatzeko urte osoak soilik zenbatuko dira; ez dira kontuan izango urte-zatikiak. Baldin eta sortzapen-aldia urtebete baino gutxiago bada, urteko koefizientea hainbanatuko da, hilabete osoak zenbatuta; hau da, ez dira kontuan izango hilabete-zatikiak.

Sortzapenaren unean lursailaren balioari aplikatu behar zaion koefizientea —aurre-ko idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatua— udalak onartu dituenekin bat datorrena izango da, balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia zein den kontuan hartuta, betiere muga hauek gainditu gabe:

Sortzapen-aldia	Koefizientea
Urte 1etik beherakoa	0,14
urte 1	0,13
2 urte	0,15
3 urte	0,16
4 urte	0,17
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,10
15 urte	0,12
16 urte	0,16
17 urte	0,20



Sortzapen-aldia	Koefizientea
18 urte	0,26
19 urte	0,36
20 urte edo gehiago	0,45

Gehieneko koefiziente horiek foru-agindu bidez eguneratuko dira urtero, eta eguneratze hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren bidez egin daiteke.

Baldin eta, aurreko paragrafoan aipatzen den eguneratzearen ondorioz, indarrean dagoen ordenantza fiskala dela bide onartutako koefizienteren bat handiagoa bada legez ezarritako gehieneko koefizientea baino, zuzenean aplikatuko da handiagoa den koefiziente hori, gaindikin hori zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

4. Subjektu pasiboak eskatuta eta 1. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako prozedura-rekin bat, egiaztatzen denean balio-gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluko honen aurreko idatz-zatietan jasotakoarekin bat zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.»

Sei. Aldatu egin da 5. artikuluko 1. idatz-zatia, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Zergaren karga-tasa udal bakoitzak finkatuko du; eta ezin da izan %15 baino handiagoa.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugari lotuz, udalek aukera izango dute edo karga-tasa bakarria finkatzeko edo karga-tasa bana finkatzeko aurreko artikuluko 3. zenbakian balio-gehikuntza sortzeko adierazitako aldietarako.»

Zazpi. Aldatu egin da 7. artikuluko 4. idatz-zatia. Honela idatzita geratzen da:

«4. Udalei ahalmena ematen zaie subjektu pasiboarentzako autolikidazio sistema ezar dezaten, artikuluko honen 2. atalean aurrikusitako epeen barruan haren emaitzazko kuotaren sarrera izango duela. Autolikidazio horiei doakielarik, 1. artikuluko 4. idatz-zatian eta 4. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoaren ondorioetarako (hurrenez hurren) eta kalterik egin gabe pertsona edo entitate interesdunak edo subjektu pasiboak aitortutako balioak egiaztatzeko ahalmenei, udal bakoitzak soilik egiaztatu ahal du likidazio horiek egiterakoan zuzen aplikatu dela zergaren araudia. Ezin izango da ezarri arau horietan ezarri ez den balio, oinarri edo kuotarik».

Zortzi. 8. idatz-zatia gehitu zaio 7. artikuluari; hau da haren edukia:

«8. Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoa dela bide, Bizkaiko Foru Aldundiak eta toki-erakundeek lankidetzan jardungo dute zerga aplikatzeko, bereziki 1. artikuluko 4. idatz-zatian eta 4. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoa betetzeko. Horretarako, zergei buruzko informazioa trukatzeko eta lankidetzarako hitzarmenak egin ahal izango dira».

Bederatzi. Edukirik gabe uzten da lehenengo xedapen gehigarria, hiri-lurren balio-gehikuntzaren zehaztapenari buruzkoa. Xedapen hori ekainaren 20ko 3/2017 Foru Dekretu Arauemailearen artikuluko bakarraren bidez jaso zen (ekainaren 20ko 3/2017 Foru Dekretu Arauemailea, zeinaren bidez Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua aldatzen den).

Xedapen Gehigarri Bakarria.—Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko 182/2021 epaiaren ondoriozko araubide aplikagarria.

Ez dira berrikusiko Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko 182/2021 epaia ematen den egunean gauza epaituaren indarra duen epai bidez edo administrazio-ebazpen irmo bidez behin betiko erabakitako zerga betebeharrak.

Ondorio horietarako bakarrik, honako hauek ere kontsolidatutako egoeratzat hartuko dira: aipatutako epaia ematerakoan aurkaratu ez diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak, bai eta data horretan zuzentzeko eskatu ez diren autolikidazioak ere, Bizkai-



ko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera.

Xedapen Iragankor Bakarra. — Ordenantza fiskalen egokitzapena

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ezarrita duten udalek beren ordenantza fiskalak aldatu behar izango dituzte, zerga horretan ezarritakoari egokitzeko. Horretarako, sei hilabeteko epea izango dute, foru-dekretu arauemaile hau indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta.

Aurreko paragrafoan xedatutako aldaketa indarrean jarri arte, foru-dekretu arauemaile honetan zehaztutakoa aplikatuko da, eta, zergaren zerga-oinarria zehazteko, foru-dekretu arauemaile honek hiri-lurren balioaren gehikuntzari dagokionez emandako ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak hartuko dira kontuan.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehena. — Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean foru-dekretu arauemaile hau.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — Arauak emateko gaikuntza

Baimena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputuari, foru-dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Azken Xedapenetako Hirugarrena. — Batzar Nagusiei igortzea

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikulua 2. zenbakian aurrez ikusitakoarekin bat, foru-dekretu arauemaile honen onespeneren berri emango zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.

Bilbon, 2021eko azaroaren 16an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ